

## BOZKETA

**Emaitzak iluntzean jakingo dira**

Egun osoan hamazazpi boz-keta mahai jarriko dira uni-bertsitatean.

**1** Ikasleen taldean 31 kide aukeratuko dira, Grupo Universitario eta Eraldatu taldeetako kideak denak, eta zazpi mahai izango dira.

**2** Irakasle funtzionarioek 81 kide hautatuko dituzte, eta 169 hautagai daude horretarako aurkeztuak. Sei mahai izango dira, gelategian denak.

**3** Irakasle ez-funtzionarioek 51 hautagai aurkeztu dituzte klaustroan 26 aulki betetzeko.

**4** Langile eta administrazio zerbitzuetakoek 12 klaustrokide aukeratuko dituzte aurkeztu diren 16 hautagaien artean. Bi hauteskunde mahai izango dituzte.

tuagoa zen oraingoa baino, eta, beraz, orain aukera gehiago ditugu. Hemen denok dugu helburu bera, hau da, ez dugu denok gai guztiei buruz berdin pentsatzen, baina gauzak nola egin behar diren, horretan ados gaude».

**Klaustroa hautatzeko prozesua aldatzea, helburu nagusia**

Taldeak aurkeztutako programako lehen gaia klaustroaren hautaketa prozesuan aldaketa egitea da. Joan den martxoan NUPeko gobernu batzordeak egin zuen bileran proposamenak izan ziren horretarako, eta klaustrokideen kopurua 250 igotzea eskatu zuten hainbat kidek, baina errektorearen taldeak proposamenak baztertu eta ikasleen ordezkaritza murriztea eta irakasleena zabaltzea onartu zen azkenean.

Hautagaitza Irekiak aniztasuna ziurtatu nahi du klaustroan, eta horretarako aukeraketa sistemak aldatzea proposatzen du. Orobat, gobernu zabala eta elkarrizketarekin irekia du helburu, «taldeko erabakiak indartzen dituen metodoak baztertuz».

Euskara da beste kezketakobat, eta gaiari «iriotasunez, argi eta modu onean» heltzea da taldearen asmoa. «Ezin da arazoa luzatu politika nahasia eginez, gune politikoetatik etor daitekeen erabakiaren zain».

Horrekin batera, irakasleen plantilla «irizpide akademiko objektiboetan» oinarrituta egotea eskatu du taldeak, eta uni-bertsitatearen autonomia berreskuratzea «ezinbestekotzat» jo du.



LANDER F. ARROIA/ABE / ARGAZKI PRESS

Intxaurrak mahai gainean zituztela aurkeztu zituzten aurtengo Iruñeko ikastaroak UEUko ordezkariak.

## Gobernuari erantzuteko, inoizko eskaintza handiena prestatu du UEUk

Sekula baino eskaintza oparoagoa aurkeztu du aurtengo Iruñean, esaterako, iaz baino lau ikastaro gehiago izango dira

A.B. | IRUÑEA

«Nafarroako Gobernuaren neurrigabekeriari erantzun akademikoa» emateko, inoiz baino eskaintza zabalagoa prestatu du aurtengo Udako Euskal Unibertsitateak, uztailearen 1etik aurrera Miarrizten eta uztailearen 15ean hasita Iruñean.

Xabier Isasi UEUko zuzendariak kritikatu zuen aurtengo bigarren aldiz UPNko gobernuak baztertu egin duela erakunde eta berak antolatutako jarduerak, eta jakintza arloan bazterkeriarik ez izatea aldarrikatu zuen. «Jakintza sareak elkarrekin banatu eta trukatzea behar ditugu».

Isasik adierazi zuen, atzo Iruñean izaniko aurkezpenean, aurtengo Iturrama Institutuaren egoitza erabiltzea ukatu duela Hezkuntza Departamentuak, oposizio zenbait izango direlako argudioarekin, eta Pedro Pegenautek zuzentzen duen Unibertsitateko eta Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiaren interesik eza nabarmendu zuen.

**Iruñeko eskaintzari eusteko asmoa**

«Oso jarrera itxia aurkitu dugu, ez dago inolako borondatearik harremanak bidera-

tzeko eta jarduerak hauek laguntzeko». Isasik adierazi zuen Iruñeko eskaintzari eusteko asmoa tinkoa duela UEUk, nahiz eta Gobernuarekin eta Iruñeko Udalarekin zeuden lankidetzak hitzarmenak eteteak kaltea egin duen. Halaber, Nafarroako ikastaroak antolatzeari buruz elkartean bertan dudak onartu zituen zuzendariek.

«Iaz egindako sailburuen batzarrean aipatu zen ahaleginarekin jarraitu behar zen edo ez, baina Nafarroako gizartetik elkartasun mezua handia

jaso genuen, eta ez hori baka-rrik, baita Iruñean jarraitzeko eskaera ere, eta eutsi egingo diogu».

Pegenautek zuzendaritza nagusiak Nafarroako bi uni-bertsitateekin eta beste zenbait erakunderekin antolatutako udako ikastaroei buruz, UEUk parte hartzeko prest zegoela argitu zuen Isasik, eta ukatu zuen beraz zuzendari nagusiak aurkezpenean esandakoa, alegia, UEUk ez zuela parte hartzeko eskaerarik egin.

«Iaz, lehen ikastaroak anto-

latu zirenean, prest agertu ginen harremanetan hasteko, eta Milenium elkartearen egonda UEUrentzako atea zabaltzen zuela esan genion Pegenautei berari, baina badi-ru di ez zaiela interesatzen; uni-bertsitate izen horrekin arazoak zituztela esan zigun zuzendari nagusiak». Horri «gehiegikeria» deitu zion Isasik. «Udako ikastaroengatik UEUk jasotzen zuena ez zen guretako, baina ikastaro duinak antolatu ahal izateko, jakina baita kultur jarduerak hauek defizitarioak direla. Gobernu hau aurrekoek egindako bidean atzera egiten ari da», esan zuen.

**«Euskal munduak eman dezakeen onena»**

Eskaintzari dagokionez, «goi mailakoa» zela nabarmendu zuen Isasik, eta helburua tradizioa eta bikaintasuna, biak batera uztartzen ahalegintzea zela esan zuen. «Euskal komunitateak sortzen duen onena eskaintzen du UEUk. Iaz Pedro Etxenike Asturiasko Printze sariduna izan zen gurekin, eta aurtengo giza genomaren arloan eginiko ikerketengatik sona hartu duen Ana Zubiagak emango du sarrera hitzaldia».

Kepa Dieguez UEUko Antolakuntza Akademikoko arduradunak adierazi zuenez, ikastaro guztiak berriak dira, eta egunerokotasunarekin lotuak dauden gaiak eta kalitatezko ikastaroak ematea dute eginbehar nagusia.

## ESKAINZA

### Intxaurraren eskola

Antolatutako ikastaroen inguruan xehetasunak emanda, antolatzaileek Literatura eta Itzulpengintza Sailak antolatutako *Intxaurraren eskola: ipuinak irakurri, idatzi eta itzuli* izenekoak nabarmendu zuten, beste batzuen artean. Ikastaroan ipuinginza jarriko dute aztergai, eta bere historia, maisuak eta geroaren gainean hainbat saio izango dira. Baita itzultzaileak ere. Hizlarien artean egile ezagunak izango dira. Filosofia, Sukaldaritza eta Gastronomia saioaren baitan, bestalde, sukaldari ezagunen parte-hartzea nabarmendu zuen Edorta Agirre antolatzaileak, eta saio praktikoa zein teorikoa tartekatuko direla azaldu. Halaber, irailaren 11ko atentatuaren ondoko egoera, euskal hedabideen erronkak, webgune dinamikoaren programazioa eta euskal arrantzaren historia ere jorratuko dituzte.